**BAZTANGO UDALA**
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN

# 2022ko IRAILaren 22ko OHIKO OSOKO BILKURA

# *SESIÓN PLENARIA ORDINARIA DE 22 DE SEPTIEMBRE DE 2022*

Baztango Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2022ko irailaren 22an, 19:00etan, Baztango Udala Osoko bilkuran bildu da, ohiko bileran, Joseba Otondo Bikondoa alkate-udalburu jauna buru dela, eta zinegotzi hauek etorri dira: Juan Cruz Iriarte Bañez, Xabier Torres Letona, Oianko Garde Jaunsaras, Idoia Sobrino Lopez eta Xabier Maia Etxeberria EH-BILDU taldekoak; Anastasio Nagore Garralda eta Maria Carmen Iribarren Iribarren NAVARRA SUMA taldekoak; Florentino Goñi Tellechea eta Iñigo Iturralde Eliceche BAZTANGO EZKERRA taldekoak; Ruben Ziganda Sanz eta Joseba Moreno Videgain GEROA BAI taldekoa.

Idazkari lanetan Iulen Urbiola Loyarte jauna aritu da.

Ez da bertaratu: Maria Isabel Olave Ballarena.

Alkatearen aginduz, bilkura hasi da.

## 1.- AKTAK ONARTU: 2022/07/21EKO ETA 2022/09/01EKO EZOHIKO BILKURAK.

2022/07/21eko eta 2022/09/01eko ezohiko osoko bilkuretako aktak bertaratutakoek aho batez **onartu dituzte**.

## 2.- 2022KO UDAL-AURREKONTUAREN 37. ALDAKETA. KONTU-HARTZAILEAREN 26. TXOSTENA.

Kontu-hartzaileak prestatu duen aurrekontu aldaketa azalduta, saio honetako espedientean dagoena (26. zenbakiduna), eta Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia eman eta bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildu ondotik.

*En la Sala de Sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 19:00 horas del día 22 de septiembre de 2022, se reúne, en sesión ordinaria el Pleno Municipal, presidido por el alcalde-presidente Joseba Otondo Bikondoa y con la asistencia de los siguientes concejales: Juan Cruz Iriarte Bañez, Xabier Torres Letona, Oianko Garde Jaunsaras, Idoia Sobrino Lopez y Xabier Maia Etxeberria por el grupo EH-BILDU; Anastasio Nagore Garralda y María Carmen Iribarren Iribarren por el grupo NAVARRA SUMA; Florentino Goñi Tellechea e Iñigo Iturralde Eliceche por el grupo BAZTANGO EZKERRA; Rubén Ziganda Sanz y Joseba Moreno Videgain por el grupo GEROA BAI.*

*Actúa como secretario D. Iulen Urbiola Loyarte.*

*No asiste: María Isabel Olave Ballarena.*

*El alcalde da comienzo a la sesión.*

## *1.- APROBACIÓN DE ACTAS: SESIÓN EXTRAORDINARIA DE 21/07/2022 Y SESIÓN EXTRAORDINARIA DE 01/09/2022.*

*Las actas de las sesiones extraordinarias de 21/07/2022 y 01/09/2022 **se han aprobado** por unanimidad de los presentes.*

## *2.- MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA Nº 37 AL PRESUPUESTO 2022. INFORME DE INTERVENCIÓN Nº 26.*

*Explicado el informe elaborado por la interventora, adjunto al expediente de la presente sesión (nº 26), y una vez expuestos por los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión.*

Onartutako koefizienteak, 2021/12/31ko 294. NAOa

| | |
|---|---|
| 0,55 | 20 urte edo gehiago |
| 0,20 | 19 urte |
| 0,20 | 18 urte |
| 0,06 | 17 urte |
| 0,06 | 16 urte |
| 0,06 | 15 urte |
| 0,06 | 14 urte |
| 0,06 | 13 urte |
| 0,06 | 12 urte |
| 0,06 | 11 urte |
| 0,06 | 10 urte |
| 0,12 | 9 urte |
| 0,19 | 8 urte |
| 0,35 | 7 urte |
| 0,41 | 6 urte |
| 0,33 | 5 urte |
| 0,26 | 4 urte |
| 0,18 | 3 urte |
| 0,11 | 2 urte |
| 0,13 | 1 urte |
| 0,06 | Urtebetetik beheiti |

**Bigarrena.- Erabaki honek 2023ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.**

**Hirugarrena.-** Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatutakoarekin bat, **onespen-erabakia jendaurrean paratuko da,** aldez aurretik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta entitatearen iragarki-oholean iragarrita. Horretarako, hogeita hamar egun balioduneko epea izanen dute, gutxienez auzotar eta interesdun legitimoek espedientea aztertzeko eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak egiteko.

***<u>4.- ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA ETA HIDROKARBUROAK ETA ALTAKO URA GARRAIATZEKO INSTALAZIOEN TOKIKO JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOA EDO APROBETXAMENDU BEREZIA EGITEKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA. HASIERAKO ONESPENA.</u>***

Kontuan hartuta Espainiako Konstituzioaren 133.2 eta 142. artikuluak eta martxoaren 2ko 4/1999 Foru Legearen 100. artikulua, Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995

*Coeficientes aprobados, BON nº 294 de 31/12/2021*

| | |
|---|---|
| *0,55* | *Igual o superior a 20 años* |
| *0,20* | *19 años* |
| *0,20* | *18 años* |
| *0,06* | *17 años* |
| *0,06* | *16 años* |
| *0,06* | *15 años* |
| *0,06* | *14 años* |
| *0,06* | *13 años* |
| *0,06* | *12 años* |
| *0,06* | *11 años* |
| *0,06* | *10 años* |
| *0,12* | *9 años* |
| *0,19* | *8 años* |
| *0,35* | *7 años* |
| *0,41* | *6 años* |
| *0,33* | *5 años* |
| *0,26* | *4 años* |
| *0,18* | *3 años* |
| *0,11* | *2 años* |
| *0,13* | *1 años* |
| *0,06* | *Inferior a 1 año* |

***Segundo.-*** *El presente acuerdo* ***entrará en vigor el día 1 de enero del 2023.***

***Tercero.-*** *De conformidad con lo dispuesto en el artículo 325 de la Ley Foral 6/1990 de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra,* ***someter el acuerdo de aprobación a información pública,*** *previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios de la entidad, por el plazo mínimo de treinta días hábiles en que los vecinos e interesados legítimos podrán examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos u observaciones.*

***<u>4.- ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR UTILIZACIÓN PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO ESPECIAL DEL DOMINIO PÚBLICO LOCAL DE LAS INSTALACIONES DE TRANSPORTE DE ENERGÍA ELÉCTRICA, GAS E HIDROCARBUROS Y AGUA EN ALTA.</u>***

*Teniendo en cuenta los artículos 133.2 y 142 de la Constitución Española y el artículo 100 de la Ley Foral 4/1999, de 2 de marzo, por la que se modifica la Ley Foral 2/1995, de 10 de marzo, de Haciendas Locales y la Ley Foral 6/1990, de 2 de*

2.- Onetsitako Ordenantza **jendaurrean** egonen da 30 egun baliodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta udal honen oholean argitaratu eta biharamunetik hasita, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

3.- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, jendaurreko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iragaten bada, Ordenantza behin betikoz onetsirik geldituko da, eta testua osorik emanen da argitara Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

*2.- Someter dicha Ordenanza a **información pública**, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios de esta entidad, por término de 30 días, para que los vecinos e interesados legítimos puedan examinarlo y formular las reclamaciones, reparos u observaciones que tengan por conveniente.*

*3.- Señalar que dicha Ordenanza se entenderá aprobada definitivamente una vez transcurrido el plazo de información pública si no se hubiesen presentado reclamaciones, reparos u observaciones, de conformidad con lo preceptuado en el artículo 325 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de julio de la Administración Local de Navarra.*

**5.- ALKATETZAKO PROPOSAMENA. 2023KO BAZTANGO BESTA EGUNA.**

Alkatetzatik proposatu da Baztango tokiko besta eguna feria eguna izatea (San Lukasen ondorengo asteko ortziralea), **2023an urriaren 27an izanen dena.**

Udalbatzak proposamena aho batez **onartu du.** Erabaki hau Nafarroako Gobernuari **helaraziko zaio,** jakitun izateko eta dagozkion ondorioetarako.

***5.- PROPUESTA DE ALCALDÍA. FIESTA LOCAL DE BAZTAN DEL AÑO 2023.***

*Desde Alcaldía se propone establecer como fiesta local de Baztan el día de ferias (el viernes de la semana siguiente a San Lucas), que **en 2023 será el 27 de octubre.***

*El Pleno por unanimidad **admite** la propuesta. Se **comunicará** el presente acuerdo al Gobierno de Navarra, para su conocimiento y efectos.*

**6.- LANKIDETZA-HITZARMENA NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA DEPARTAMENTUAREKIN, KIROL INSTALAZIOAK ERABILTZEKO BALDINTZEI BURUZKOA.**

Aurrekariak azaldurik, arrazoiak eta ondorioak aurkezturik, Udalbatzako kideek aipatutako gaiaz beren iritzia eman ondoren, bilkura honi dagokion soinu fitxategian bildua.

**Joseba Moreno, Geroa Bai:** Galdetzen du ea herritarrek eskubidea duten polikiroldegia erabiltzeko.

**Iñigo Iturralde, Baztango Ezkerra:** Udalak eskola orduetatik kanpo kudeatuko du polikiroldegia. Bertako klubek eta partikularrek izango dute erabiltzeko aukera. Orain kudeaketa nola egin aztertzen ari dira.

**Ruben Ziganda, Geroa Bai:** Suposatzen du eskolek eskola orduetan erabiliko dutela.

**Iñigo Iturralde, Baztango Ezkerra:** Eskola ordutik kanpo erabiltzeko ikasleek eskaera egin beharko dute udalean, eta erabilera ordaindu.

Jakinda toki entitateek akordioak, hitzarmenak eta kontratuak adosten ahal dituztela zuzenbide pribatu eta publikoko pertsonekin, beti ere ordenamendu juridikoaren kontra egiten ez

***6.- CONVENIO DE COLABORACIÓN CON EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DEL GOBIERNO DE NAVARRA, RELATIVO A LAS CONDICIONES DE USO Y UTILIZACIÓN DE INSTALACIONES DEPORTIVAS.***

*Explicados los antecedentes, así como los motivos y consecuencias de la misma, exponiendo los corporativos, sobre el punto de referencia, sus opiniones al efecto y recogidas en el archivo de audio de la presente sesión.*

***Joseba Moreno, Geroa Bai:** Pregunta si los ciudadanos tienen derecho a utilizar el polideportivo.*

***Iñigo Iturralde, Baztango Ezkerra:** El Ayuntamiento gestionará el polideportivo fuera del horario lectivo. Podrán utilizarlo tanto los clubes locales como particulares. Ahora se está estudiando cómo gestionar.*

***Rubén Ziganda, Geroa Bai:** Supone que los centros escolares lo utilizarán en horario lectivo.*

***Iñigo Iturralde, Baztango Ezkerra:** El alumnado deberá realizar una solicitud en el Ayuntamiento para utilizarlo fuera del horario lectivo y pagar el uso.*

*Considerando que las Entidades Locales pueden celebrar acuerdos, pactos, convenios o contratos con personas tanto de derecho público como privado, siempre que no sean contrarios al*

**PREMIAZKOA**

6/1990 Foru Legearen 81.2 artikuluaren arabera ohiko bilkurako gai-zerrendari premiaz gai bat gehitzea gehiengo osoarekin erabaki behar da.

Udalbatza osatzen duten zinegotziek ondoko gaia **gehitzea** onartu dute aho-batez:

**Batzar Nagusiak 2022ko buruilaren 15ean hartutako akordioa. Alkatearen proposamena.**

5 minutuko etenaldia egin da.

Batzar Nagusiak 2022ko buruilaren 15ean Erdizi buruzko galdeketa ez-errefrendarioaren inguruan hartutako akordioaren berri eman da. Ildo honetan alkateak proposamen bat egin du.

Alkateak bozkatzera deitu du. Udalbatzak aldeko 10 botorekin eta kontrako 2rekin honako hau **erabaki du:**

1.- Udalak, galdeketa ez-errefrendarioa babestea eta Batzar Nagusiak hala eskatuta, galdeketa ez-errefrendarioaren alderdi teknikoez eta azpiegituraz arduratzea (boto-paperak, erroldak, mahaiak, bozketa-tokiak…).

2.- Galdeketa ez-errefrendarioan herritarren parte-hartzea bultzatzea.

*URGENCIA*

*Para incluir un asunto urgente en el orden del día de sesión ordinaria, de conformidad con lo establecido en el art 81.2 Ley Foral 6/1990 debe acordarse su inclusión por mayoría absoluta.*

*Los concejales que conforman la Corporación Municipal acuerdan por unanimidad* ***incluir*** *el siguiente asunto:*

***Acuerdo de la Junta General de 15 de septiembre de 2022. Propuesta de Alcaldía.***

*Receso de 5 minutos.*

*Se da cuenta del acuerdo adoptado por la Junta General el 15 de septiembre de 2022 en relación a la consulta no referendaria sobre Erdiz. Sobre este punto, el alcalde ha realizado una propuesta.*

*El alcalde llama a votar. El Pleno por 10 votos a favor y 2 en contra* ***acuerda:***

*1.- A petición de la Junta General apoyar la consulta no referendaria, y hacerse cargo de los aspectos técnicos y de la logística de la consulta no referendaria (papeletas, censos, mesas, centros de votación…).*

*2.- Impulsar la participación ciudadana en la consulta no referendaria.*

**GALDE-ESKEAK**

**Anastasio Nagore, Navarra Suma:** Futbol zelaiari buruz galdetu du.

**Iñigo Iturralde, Baztango Ezkerra:** Enpresarekin sinatu dute urriaren 10erako belarra hemen egonen dela. Instalazioa segidan egingo da eta klubarekin adostu entrenamenduak nola egin.

**Anastasio Nagore, Navarra Suma**: Urari dagokionez, esan du Udalak arazo bat duela planteatu beharko duela. Herri bakoitzeko uraren egoera ezagutzea proposatzen du, herrietako alkateen bidez. Uste du erabakiak hartu behar direla, ezin baita bertze uda berorik izan horrelako egoera zailetan.

**Joseba Otondo, alkatea:** Arrazoia du. Uraren kudeaketak Baztanen eman du ahal zuen guzia. Herri batzuetan ongi funtzionatzen du, bainan ez bertze batzuetan eta horrek gogoeta eskatzen du. Nafarroako Gobernuarekin bilera bat adostu dute. Lehendabiziko lana da Baztango uraren azpiegitura inbentariatzea; iturburuak, depositUak, hodiak… eta herrietako datuak biltzea; nola kobratzen duten, zenbat…

*RUEGOS Y PREGUNTAS*

***Anastasio Nagore, Navarra Suma:*** *Pregunta sobre el campo de fútbol.*

***Iñigo Iturralde, Baztango Ezkerra:*** *Han firmado con la empresa que el 10 de octubre el césped estará aquí. La instalación se realizará a continuación y se acordará con el club cómo realizar los entrenamientos.*

***Anastasio Nagore, Navarra Suma****: Sobre el tema del agua, dice que el Ayuntamiento tiene que plantearse que tiene un problema. Propone conocer la situación del agua en cada pueblo a través de los jurados. Cree que hay que ir tomando decisiones, porque no se puede permitir tener otro verano de calor con situaciones complicadas.*

***Joseba Otondo, alcalde:*** *Tiene razón. La gestión del agua ha dado todo lo que podía en Baztan. En algunos pueblos funciona bien, pero no en otros, y por eso habrá que reflexionar. Han acordado una reunión con el Gobierno de Navarra. El primer trabajo consiste en hacer inventario de la infraestructura del agua de Baztan; manantiales, depósitos, tuberías… y recabar datos de los pueblos; cómo cobran, cuánto…*

## ADIERAZPEN INSTITUZIONALA - LANDA EREMUKO EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA 2022

Gaur, urriak 15, landa eremuko Emakumeen Nazioarteko Eguna da. "Nafarroako landa eremuko erronka feminista izanen da edo ez da izanen" lelopean elkarrekin ospatuko dugu egun hau Berdintasun Teknikaria duten toki eta lurralde entitateek. Emakumeek, beren aniztasun osoan, Nafarroako landa-eremuetako lurraldeen jasangarritasunean duten zeregina eta ekarpena aitortu nahi dugu. Era berean, arras modu aktiboan lagundu nahi dugu ingurune hori eboluzioaren, garapenaren eta aurrerapenaren adibide izaten jarrai dezan, bai ekonomiaren esparruan, bai gure herri eta landa-eremuetako gizarte- eta kultura-arloan.

Testuinguru zabal horretan, emakume guztiek funtsezko eginkizuna izan dute eta dute, eta, beraz, toki-erakundeek beren bizi-kalitatea hobetzeko lan egin behar dugu, zerbitzu publikoetara sartuz eta haien aldarrikapen eta beharrei erantzunez.

Horregatik, apustu sendoa egin nahi dugu, erronka garrantzitsuak ekarriko dituena. Erronka horiek landa-eremuan lan egiteko kontuan hartzeko estrategia izanen dira, gure lurraldeetan etorkizun oparoa, bidezkoa eta baketsua eraikitzeko funtsezkoak direlako: genero-berdintasuna landa-lurraldeetan zeharka sartzea, inguru horretako emakumeen eta nesken ahalduntzea, emakumeen parte-hartze soziopolitikoa herritar aktibo eta boteretsuak izateko, lana eta bizitza pertsonala uztartzea, emakumeen elkartegintzari eta berdintasunaren alde lan egiten duen elkarteei laguntzea eta baliabideak ahalik eta gehien optimizatzea.

Bereziki, uste dugu lehentasuna eman behar zaiela honako gai hauei:

- Emakume gazteak kontuan hartzea, hirietara joan ez daitezen garapen pertsonalerako eta lan-garapenerako aukeren bila.
- Emakumeak norberaren eta besteren konturako lan-merkatuan sar daitezen sustatzea, landa-eremuan hirietan baino zailagoa baita.
- Pentsamolde-aldaketa lortzea, emakumeen eta gizonen arteko rol-banaketaren barruan bereizkeria-egoerarik sor ez dadin eta landa-eremuko emakumeen egoera pertsonala eta lan-egoera hobetu dadin. Emakume horiek ikusezin bihurtu dira, eta baserriko lanez gain, "etxeko eta familiako zereginak" ere emakumeek egin beharreko lanen gisa ikusi izan da beti.

Azken finean, toki-erakundeek gure ahaleginak bateratzen ditugu landa-eremuan emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra bermatzeko. Horretarako, emakumeen ahalduntzean aitzinera egin behar da, eta emakumeen presentzia eta parte-hartze aktiboa areagotu behar dira bizitzako eremu guztietan. Landa-eremuko emakumeak agerian eta aintzat hartuak izatea da gure konpromisoa, eta, horregatik, bat egiten dugu emakumeen elkarteak egiten ari diren lanarekin eta haien aldarrikapenen alde egiten dugu.

Modu positiboan laguntzen jarraituko dugu, Nafarroako lurralde zabal eta askotarikoa osatzen duten herrietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aitzinera egiteko, horrek ekarriko duen onuraz jabetuta.

BAZTAN BALLEKO UDALA
BAZTAN
Ayuntamiento del Noble Valle y Universidad de Baztan